

Bexen Cardio cardio-protege Madrid al equipar toda la flota de EMT con 2.200 desfibriladores

- Bexen Cardio suministra, instala y mantiene los 2.200 desfibriladores que equiparán la totalidad de la flota de autobuses de EMT Madrid, cuyo despliegue finalizará el próximo mes de octubre.
- Los autobuses incorporan el desfibrilador Reanibex 100, un dispositivo diseñado para ser utilizado por personas sin formación sanitaria sin perfil sanitario en caso de parada cardiorrespiratoria. El equipo guía al usuario con instrucciones auditivas paso a paso con instrucciones auditivas, y activa automáticamente el del aviso al 112, favoreciendo una respuesta rápida y coordinada.
- La cooperativa, única fabricante nacional de desfibriladores, ha desarrollado una solución integral de cardio-protección conectada que permite la monitorización remota y en tiempo real del estado operativo de los equipos las 24 horas del día.

Ermua (Bizkaia), 15 de julio de 2026.

Bexen Cardio, integrada en la Corporación MONDRAGON y única fabricante nacional de desfibriladores, es la empresa responsable del suministro, la instalación y el mantenimiento de los 2.200 desfibriladores externos automatizados (DEA) Reanibex 100 que equiparán la flota de autobuses de EMT Madrid.

El proyecto de cardio-protección de toda la flota de EMT Madrid se ha presentado hoy en el Palacio de Cibeles, en un acto presidido por el **alcalde de Madrid, José Luis Martínez-Almeida**, acompañado por el delegado de Urbanismo, Medio Ambiente y Movilidad, Borja Carabante, y el consejero delegado de EMT Madrid, Alfonso Sánchez.

Durante la presentación, Bexen Cardio ha realizado una demostración del funcionamiento del desfibrilador Reanibex 100 y de la solución de cardio-protección conectada, que permitirá monitorizar en tiempo real el estado operativo de los equipos instalados en la flota.

Al acto también han asistido **Javier Amézaga**, vicepresidente de MONDRAGON Corporation; **Ramón Gómez Ugalde**, director de Relaciones Institucionales de MONDRAGON; y **Digna González**, directora general de Bexen Cardio.

La instalación de desfibriladores ha comenzado en julio y el proyecto culminará el próximo mes de octubre, momento en el que todos los autobuses municipales contarán con un desfibrilador a bordo. Esta iniciativa garantiza la seguridad de millones de usuarios y sitúa a Madrid como un referente en cardio-protección aplicada al transporte público.

Con la instalación de los 2.200 desfibriladores en la totalidad de la flota, Madrid dispondrá de una red móvil de cardio-protección única. Los equipos circularán de forma permanente por toda la ciudad, lo que permitirá reducir el tiempo de acceso a un desfibrilador ante una parada cardiorrespiratoria, un factor clave para aumentar las probabilidades de supervivencia.

Los autobuses de EMT Madrid transportan diariamente a cientos de miles de viajeros, por lo que la incorporación de desfibriladores convierte a la red municipal en un importante espacio cardio-protégido al servicio de la ciudadanía. La presencia visible de estos equipos contribuye, además, a sensibilizar sobre la importancia de actuar con rapidez ante una parada cardiorrespiratoria y de iniciar cuanto antes la cadena de supervivencia.

El contrato, adjudicado a Bexen Cardio el pasado mes de marzo, tiene un importe de **2.897.040 euros (sin IVA)** e incluye el suministro, instalación, mantenimiento y gestión de incidencias de los equipos durante cinco años, bajo un modelo de renting.

Tecnología para salvar vidas

Los autobuses incorporan el **Reanibex 100**, un desfibrilador externo automatizado (DEA) de fabricación española diseñado y fabricado por Bexen Cardio. El equipo está preparado para atender tanto a pacientes adultos como pediátricos y ha sido desarrollado para que pueda ser utilizado de forma sencilla, segura e intuitiva por personas sin perfil sanitario en una situación de emergencia.

El dispositivo guía al rescatador durante todo el proceso de reanimación mediante instrucciones auditivas claras, desde la colocación de los electrodos hasta la realización de la RCP y, cuando procede, la administración de la descarga. Además, incorpora ayudas a la reanimación cardiopulmonar como un metrónomo y un sistema de retroalimentación en tiempo real sobre la frecuencia de las compresiones torácicas, contribuyendo a mejorar la calidad de la RCP y aumentar las posibilidades de supervivencia ante una parada cardíaca.

El Reanibex 100 incorpora también un sistema de geolocalización integrado que permite conocer la ubicación de cada equipo en todo momento. Su diseño facilita su integración en espacios públicos y vehículos de transporte colectivo, manteniendo un manejo rápido y sencillo cuando cada minuto cuenta.

Monitorización remota las 24 horas

La solución integral de cardio-protección conectada desarrollada por Bexen Cardio permite monitorizar de forma remota el estado de los **2.200 desfibriladores** instalados en la flota de EMT Madrid las 24 horas del día. El seguimiento continuo del funcionamiento de todos los equipos permite detectar y gestionar de forma ágil

cualquier incidencia, garantizando su disponibilidad y el correcto estado operativo de los equipos en todo momento.

En caso de emergencia, al retirar el desfibrilador de su soporte se activa automáticamente un aviso al 112 y se envía la ubicación del equipo, favoreciéndola coordinación de los servicios de emergencia. El dispositivo se enciende automáticamente al abrir la tapa y guía al usuario durante todo el proceso mediante instrucciones auditivas claras.

Testimonios

Digna González, directora general de Bexen Cardio, ha destacado que: *"Para BEXEN CARDIO es un orgullo formar parte de un proyecto que acerca la cardio-protección al día a día de miles de ciudadanas y ciudadanos. Como único fabricante nacional de desfibriladores, aportamos nuestra experiencia y capacidad técnica para ofrecer a EMT Madrid una solución cercana y adaptada a sus necesidades, orientada a contribuir a salvar vidas cuando cada minuto cuenta".*

Por su parte, **Javier Amézaga, vicepresidente de MONDRAGON Corporation**, ha señalado: *"MONDRAGON desarrolla tecnología avanzada al servicio de las personas, generando impacto positivo en la sociedad. Este nuevo servicio refuerza, además, la presencia diversificada de MONDRAGON en Madrid, donde cerca de 3.000 personas desarrollan actividad industrial, de servicios, financiera y universitaria. Supone una gran satisfacción que una empresa de nuestro ecosistema, BEXEN CARDIO, contribuya a reforzar la cardio-protección de la ciudad de Madrid a través de su transporte público. Felicitamos a la ciudad de Madrid por esta iniciativa pionera, que ayudará a salvar vidas."*

Más información: <https://landing.bexencardio.com/emt/#press-kit>

Argi Osa Aretxabaleta
ASESORA EN CARDIO-PROTECCIÓN

Osatu, S.Coop.
Edificio Zearrekobuelta
Subida de Aretio 5, 48260 Ermua (Spain)

T. [+34 943 170 220](tel:+34943170220)
M. +34 678 860 391

Bexen Cardiok Madril kardio-babestu du EMTren autobus-flota osoa 2.200 desfibriladorez hornituta

- Bexen Cardio arduratuko da EMTren Madrilgo autobus-flota osorako 2.200 desfibriladoreak hornitu, instalatu eta mantentzeaz. Instalatze-lanak datorren urrian amaituko dira.
- Autobusek Reanibex 100 desfibriladorea izango dute. Osasun-arloko prestakuntzarik ez duten pertsonak bihotz-biriketako geldialdi baten aurrean erabiltzeko diseinatutako gailua da. Ekipoak erabiltzailea urratsez urrats gidatzen du jarraibideen bidez, eta automatikoki aktibatzen du 112rako abisua, erantzun azkarra eta koordinatua erraztuz.
- Kooperatibak -desfibriladoreen estatuko fabrikatzaile bakarrak- ekipoen egoera operatiboa urrutitik eta denbora errealean, eguneko 24 orduetan, monitorizatzeko aukera ematen duen soluzio integral konektatua garatu du.

Ermua (Bizkaia), 2026ko uztailaren 15a.

Bexen Cardiok, MONDRAGON Korporazioaren kide eta estatu mailan desfibriladoreen fabrikatzaile bakarra den enpresak, EMTren Madrilgo autobus-flota hornituko du Reanibex 100 desfibriladore automatizatuekin eta haien instalatzeaz eta mantentzeaz ere arduratuko da.

EMT Madrid-en flota osoa kardio-babesteko proiektua gaur aurkeztu da Cibeles Jauregian, **José Luis Martínez-Almeida Madrilgo alkatea** buru izan duen ekitaldian. Harekin batera izan dira Borja Carabante Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasuneko ordezkaria eta Alfonso Sánchez EMT Madrid-eko kontseilari delegatua.

Aurkezpenean, Bexen Cardiok Reanibex 100 desfibriladorearen eta kardio-babes konektatuko gailuak nola funtzionatzen duen erakutsi du. Soluzio horri esker, autobusen flotan instalatutako ekipoen egoera operatiboa denbora errealean monitorizatu ahal izango da.

Ekitaldian izan dira, halaber, **Javier Amezaga MONDRAGONen presidenteordea; Ramón Gomez Ugalde MONDRAGONen Harreman Instituzionaletako zuzendaria; eta Digna Gonzalez, Bexen Cardioreen zuzendari nagusia.**

Desfibriladoreen instalazioa uztailan hasi da, eta proiektua datorren urrian amaituko da. Une horretatik aurrera, udal-autobus guztiek desfibriladore bana izango dute barruan. Ekimenak milioika erabiltzaileen segurtasuna indartuko du eta Madril erreferente bihurtuko du garraio publikoari aplikatutako kardio-babesean.

Flota osoan 2.200 desfibriladore instalatuta, Madril-ek kardio-babeserako sare mugikor paregabea izango du. Ekipoak etengabe ibiliko dira hirian zehar, eta, horri esker, bihotz-biriketako geldialdi baten aurrean desfibriladore bat eskuratzeko behar den denbora murriztu ahal izango da. Denbora hori funtsezkoa da bizirauteko probabilitateak handitzeko.

EMT Madrid-eko autobusek ehunka mila bidaiari garraiatzen dituzte egunero. Horregatik, desfibriladoreak instalatuta, udal-sarea herritarren zerbitzura dagoen kardio-babestutako espazio garrantzitsu bihurtuko da. Gainera, ekipo horiek ikusgai egoteak bihotz-biriketako geldialdi baten aurrean azkar jardutearen eta biziraupen-katea lehenbailehen abiaraztearen garrantziaz kontzientziatzen lagunduko du.

Kontratua joan den martxoan esleitu zitzaion Bexen Cardiori. **2.897.040 euroko zenbatekoa du, BEZik gabe**, eta ekipoen hornidura, instalazioa, mantentzea eta gorabeheren kudeaketa barne hartzen ditu bost urtez, renting eredu baten bidez.

Bizitzak salbatzeko teknologia

Autobusek Reanibex 100 izango dute, Bexen Cardiok estatuan diseinatu eta fabrikatutako desfibriladore automatizatua. Ekipoa paziente helduak zein pediatrikoak artatzeko prestatuta dago, eta osasun-arloko prestakuntzarik ez duten pertsonen larrialdi-egoera batean modu erraz, seguru eta intuitiboan erabiltzeko garatu da.

Gailuak erreskatatzailea erreanimazio-prozesu osoan zehar gidatzen du ahozko jarraibide argien bidez: partxeak jartzen direnetik bihotz-biriketako bizkortzea egin arte eta, beharrezkoa denean, deskarga eman arte ere bai.

Gainera, bihotz-biriketako bizkortzea egiteko laguntzak ditu, hala nola metronomoa eta bularreko konpresioen maiztasunari buruzko denbora errealeko retroalimentazio-sistema. Horri esker, BBBren (bihotz-biriken bizkortzea) kalitatea hobetzen eta bihotz-geldialdi baten aurrean bizirauteko aukerak handitzen laguntzen du.

Reanibex 100ak geolokalizazio-sistema integratua ere badu, ekipo bakoitza une oro non dagoen jakiteko aukera ematen duena. Bere diseinuak espazio publikoetan eta garraio kolektiboko ibilgailuetan integratzea errazten du, minutu bakoitzak garrantzia duen egoeretan erabilera azkarra eta erraza bermatuz.

Urrutiko monitorizazioa, eguneko 24 orduetan

Bexen Cardiok garatutako kardio-babes konektatuko soluzio integralari esker, EMT Madrid-en flotan instalatutako **2.200 desfibriladoreen** egoera urrutitik monitorizatu ahal izango da, eguneko 24 orduetan.

Ekipo guztien funtzionamendua etengabe kontrolatzeak edozein gorabehera azkar hautematea eta kudeatzea ahalbidetzen du, ekipoak une oro erabilgarri eta egoera operatibo egokian daudela bermatzeko.

Larrialdi bat gertatuz gero, desfibriladorea euskarritik kentzean, automatikoki aktibatzen da 112rako abisua eta ekipoaren kokapena bidaltzen da, larrialdi-zerbitzuen koordinazioa erraztuz. Gailua automatikoki pizten da estalkia irekitzean, eta erabiltzailea prozesu osoan zehar gidatzen du ahozko jarraibide argien bidez.

Adierazpenak

Digna Gonzalez Bexen Cardioko zuzendari nagusiak honako hau nabarmendu du: *«Bexen Cardiorentzat harrotasun handia da kardio-babesa milaka herritarren egunerokotasunera hurbiltzen duen proiektu honetan parte hartzea. Desfibriladoreen estatuko fabrikatzaile bakarra garen aldetik, gure esperientzia eta gaitasun teknikoa eskaintzen dizkiogu EMT Madrid-i, haren beharretara egokitutako soluzio hurbila eskaintzeko eta minutu bakoitzak garrantzia duenean bizitzak salbatzen laguntzeko».*

Bestalde, **Javier Amezaga MONDRAGONen presidenteordeak** honako hau adierazi du: *«MONDRAGONek pertsonen zerbitzura dagoen teknologia aurreratua garatzen du, gizartean eragin positiboa sortuz. Zerbitzu berri honek, gainera, MONDRAGONek Madrilen duen presentzia dibertsifikatua indartzen du; izan ere, ia 3.000 pertsonak industria-, zerbitzu-, finantza- eta unibertsitate-jarduerak garatzen dituzte bertan.*

Poz handia da gure ekosistemako enpresa batek, Bexen Cardiok, Madrilgo hiriaren kardio-babesa indartzen laguntzea garraio publikoaren bidez. Madrilgo hiria zoriondu nahi dugu bizitzak salbatzen lagunduko duen ekimen aitzindari honengatik».

Informazio gehiago: <https://landing.bexencardio.com/emt/?lang=eu>

Argi Osa Aretxabaleta
KARDIO-BABES AHOLKULARIA

Osatu, S.Coop.
Edificio Zearrekobuelta
Subida de Areitio 5, 48260 Ermua (Spain)

T. [+34 943 170 220](tel:+34943170220)
M. [+34 678 860 391](tel:+34943860391)